

# Getxo >MEETING<



## **Ekainak 10** **Urte erdiko balantzea**

Badirudi urteko balantzea egiten den unea izan ohi dela urtea jada igaro denean. Beraz, ez da egoten egoera iraultzeko tarterik. Bada, garrantzitsua da bidean atsedenaldirik bat egitea eta atzera begiratzea. Hala, nola jarraitu behar dugun jakingo dugu. Jakingo dugu ea erritmoa jaitsi edo areagotu egin behar dugun. Edo norabidez aldatu.

Pentsatzen baduzu zure enpresan zer gertatu den 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, zer nabarmenduko zenuke? Zerrenda bat egin dezakezu. Zerrendak gauza zehatzak nahiz abstraktuak izan ditzake.

Gero, item bakoitzaren ostean idatz dezakezu gertatu den horretatik zer iruditzen zaizun interesgarria.

Bestalde, zirkulu bat marraztu eta 8 zatitan zatitzeko eskatuko dizugu.

Bakoitzari zure enpresako arlo baten izena eman ahal diozu (zure enpresa pertsona bakarrekoa edo talde txikia izanik ere, ziur arlo ezberdinak jorratzen dituzula).

- Estrategia
- Marketina
- Komertziala
- Ekoizpena
- Finantzarioa

**”Bizkaiko Foru Aldundiak kofinantzatutako proiektua”**

- Ikerketa+Garapena+Berrikuntza
- Autozaintza
- Ametsak

(Nahi duzun hurrenkeran jar ditzakezu).

Jarraian, urteko lehenengo hiruhilekoko zati, mugarri, egitate eta ekintza bakoitza dagokion atalean kokatzeko eskatuko dizugu.

Gero, beste kolore batez, idatzi ea zer nahi duzun gertatzea enpresako zortzi arlo horietako bakoitzean datozen 6 hilabeteetan. Ez dute zertan ekintzak izan, baizik eta bakoitzean markatzen dituzun helburuak.

Ariketa hau egin ostean ikuspegi zabalagoa izango duzu. Baietz?